




AZTERKETA

E A E k o K u l t u r a E r e m u k o E n p r e s e n, E n p l e g u e n e t a L a n M e r k a t u a r e n A n a l i s i a



Aurkibidea

	Aurkezpena	3
1.	EMAITZAK IRAKURRI AURREKO GOGOETAK	4
	1.1. Lehenengo gogoeta. Kultura mugatzea estatistiketan: noraino iristen da kultura?	4
	1.2. Bigarren gogoeta. Informazioa xehatu eta eskuratzeko desorekak	6
2.	ENPRESAK ETA ESTABLEZIMENDUAK	7
	2.1. Kultura-eremuko enpresei lehen begiratua (lehen geruza/maila)	8
	2.2. Kultura-eremuko enpresei buruzko ikuspegi zabalagoa (bigarren geruza/maila)	12
	2.3. Emaitzak konparatzea beste Autonomia Erkidego batzuekin	14
3.	ENPLEGUA ETA PERTSONEN KUDEAKETA KULTURA EREMUKO ENPRESETAN	17
	3.1. Kultura-eremuko enpleguari lehen begiratua (lehen geruza/maila)	18
	3.2. Kultura-eremuko ekonomia-jarduerako enpleguari buruzko ikuspegi zabalagoa (bigarren geruza/maila)	22
	3.3. Kultura-eremuko ekonomia-jarduerako enpleguaren hurbilketa	23
	3.4. Giza baliabideen kudeaketa kultura-jarduerako enpresetan	24
4.	LAN MERKATUA KULTURA JARDUERETAN: ENPLEGUAREN ESKAINTZA-ESKARIA	27
5.	LABURPEN KAPITULUA	30

AURKEZPENA

Txosten honen helburua zera da, EAEn kulturak duen garrantzi ekonomikoa kokatzea, hiru eremu erabakigarri aztertuta: enpresak, enpleguak eta lan-merkatua (enpleguaren eskaintza eta eskaria) kultura-profesionalei dagokienez.

Kulturari buruzko estatistika-eragiketa espezifikoaren analisiari esker egin ahal izan dugu hurbilketa hau; eragiketa horiek KEB Kulturaren Euskal Behatokiak berak (esate baterako, industria eta arteei dagokiena), Kultura Sailak (esate baterako, museoiei, liburutegiei eta artisautzari dagokiena) eta beste hainbat iturri (Kultura Ministerioak, adibidez) bultzatutakoak dira. Horretaz gain, Eustatek, Enplegu eta Gizarte gaitako Sailak eta INEMeko Behatokiak emandako zeharkako beste estatistika-eragiketa batzuetako datuak ere ustiatu ditugu; hain justu, Eustatek Ekonomia Jardueren Gidazerrenda eskaini digu, Enplegu eta Gizarte gaitako Sailak Lan Merkatuaren Errolda, eta INEMek kontratazioak.

Azken batean, iturrien eta eragiketen laburpen bat baino ez da, eta horri esker, EAEn kulturak duen garrantzi ekonomikoari buruzko lehen argazkia osa dezakegu, aipatutako alderdiak definitzen dituzten aldagai eta adierazleen multzo baten bitartez; gainera, kultura-errealitatea gainerako ekonomia-jardueretik eta/edo beste Autonomia Erkidego batzuekiko kokatu/konparatzen dute. Kapitulu bakoitzean iturri estatistiko bakoitzaren datuak aztertuko ditugu, eta laburpen-kapitulu bat ere landu dugu; azken kapitulu horretan, enpresak zein enpleguak zenbatzeko.

Alabaina, emaitzak aurkeztu aurretik hainbat gogoeta egin behar dira informazioa hobeto ulertu eta interpretatzeko; izan ere, kultura-jarduera zehazteko garaian, iturri bakoitzak ikuspegi bat eta muga jakin batzuk finkatu ditu.

1. EMAITZAK IRAKURRI AURREKO GOGOETAK

Emaizta hauek eraikitzeke prozesuan hainbat eragozpen metodologiko izan ditugu, eta datuak irakurtzen hasi aurretik kontuan izan beharreko modukoak dira.

1.1. LEHENENGO GOGOETA. KULTURA MUGATZEA ESTATISTIKETAN: NORAINO IRISTEN DA KULTURA?

Zer hartzen da «kulturatzat» analisi estatistikoan? Zer jarduera sartzen dira? Eta, beraz, zer EJSN eta LES erabiliko ditugu mugatzeko? Kultura beste sektore batzuekin elkarreraginean dago, eta gainera, batzuetan, sailkapen jakin batzuekin bat etortzea ere oso zaila denez, sektorearen analisia egitea lan nekeza izan daiteke. Zenbait kasutan, iturriaren/eragiketaren arabera, eta, bereziki, datuen eskuragarritasunaren arabera (ikus bigarren gogoeta) definitzen da kultura, enpresak eta lanbideak mugatzeko garaian. Esate baterako:

a. Kulturako enpresa eta lanbideekiko hurbilketa, Behatokitik. Kulturaren Euskal Behatokiak (eta Kultura Sailak) bultzatutako lehen estatistika-eragiketei erreparatuta, kulturaren analisia egin daiteke, baina (92ko EJSNren barruan) Jolaseko eta kulturako jarduera jakin batzuekin loturiko ekonomia-jarduerak ardatz hartuta eta, zehazki: Zinemagintzako eta bideogintzako jarduerak (921), Irratiko eta telebistako jarduerak (922), Arteetako eta ikuskizunetako bestelako jarduerak (923), Liburutegietako, artxiboetako, museoetako eta bestelako kultura-instalazioetako jarduerak (925). Aholkularitza-taldeak Behatokia estatistika-eragiketa berriak ezartzeko ikuspegi hori osatu eta beste hainbat jarduera ere txertatzen ari da: merkataritza, argitalpen-industria, eta abar; hori horrela izanik, kultura-jarduerari buruzko ikuspegi zehaztuagoa eta adierazgarriagoa lortuko dugu (horrekin loturik, ikus 2010ean ezarri beharreko eragiketen proposamena).

b. Kultura Ministerioak kultura-eremuari ezarritako mugak (betiere Europar Batasunaren ildoetara jarraiki). Kasu horretan, kultura-eremuaren definizioa askoz ere zabalagoa da (dela enpresen, dela enpleguen analisiari dagokienez), izan ere, Jolaseko eta kulturako jardueraz gain, beste jarduera batzuk ere (aparatuek egitea, merkataritza eta abar) hartzen ditu barnean. Zehazkiago:

— *enpresa kopuruari dagokionez*, kultura-eremua mugatzeko Enpresen Aurkibide Zentrala (DIRCE) erabiltzen da eta ekonomia-jarduera nagusia hauetako bat duten enpresak hartu dira kontuan:

- *Barne hartzen ditu*: Argitalpenak (221), Arte grafikoak eta horiekin loturiko zerbitzuetako jarduerak (222) eta Euskarri grabatuen aldakiak (223); Soinua eta irudia, jaso, grabatu eta birsortzeko aparatuak egitea (323); Musika-tresnak egitea (363); Zinemagintza eta bideogintzako jarduerak (921), Irrati eta telebista jarduerak (922); Arte eta ikuskizunetako bestelako jarduerak (923); Albiste-agentzi jarduerak (924); Liburutegietako, artxiboetako, museoetako eta bestelako kultura-instalazioetako jarduerak (925).
- *Ez ditu aintzat hartzen* banaketa maila handiagoa eskatu luketen kultura-jarduerak, adibidez Kultura-produktuen handizkako eta txikizkako salerosketa, 5 zifrako epigrafeetan sailkatuta daudelako (51.471 eta 52.470); Arte Galeriak 52.487.ean eta Argazkigintza 74.81.ean egotearren.

— *kultura-enpleguari dagokionez*, kultura-eremua mugatzeko garaian honako lanbide hauek hartu dira aintzat:

- 251 Sormeneko eta interpretazioko idazleak eta artistak, 252 Artxibozainak, liburuzainak eta berdinetsitako profesionalak, 292 Liburutegietako eta berdinetsitako arloetako laguntzaileak, 354 Arte, ikuskizun eta kiroletako profesionalak, eta bestelako edozein lanbide, kultura-jarduera ekonomikoa baldin bada. Ez du aintzat hartzen argazkilariei buruzko informaziorik, 30.41. errubrikan sartuta daudelako eta «Arte, ikuskizun eta kiroletako profesionalak», 35.4. epigrafea osorik jasotzen du, nahiz eta atal honetan kultura-eremutik kanpoko langile talde bat egon.
- Ministerioak halaxe definitzen du enplegua: kultura-lanbidea, ekonomia osoan edota kultura sektoreetan edozein enplegu betetzen duen 16 urtetik gorako langile taldea da. Kultura dimentsioa duten profesional jarduerak, adibidez idazleak, artistak, artxibozainak, liburuzainak eta abar, kultura-lanbidetzat hartu dira. Jarduera guzti hauek aurreikusi dira enplegu-emailearen jarduera nagusia kontuan hartu gabe. Era berean, kultura-jarduerak argitalpen jarduerak, liburutegiak, artxiboak, museoak eta bestelako kultura instalazioetako jarduerak, zinema, bideo, irrati eta telebistako jarduerak eta arte eta ikuskizunetako jarduerak, besteak beste, barne biltzen dituzte. Jarduera hauetan enplegu osoa aurreikusten da, lanbidea (artistiko, tekniko, administrazio edo zuzendaritzakoa) kontuan hartu gabe denak baitira behar-beharrezkoak kultura-industrien jardun egokirako.

c. Kultura-eremuko ekonomia-jardueren ikuspegi «zabal» hori kontuan izanik, EAEko datuak hobeto zehazteko, Eustatek (DIRAE) edo Enplegu eta Gizarte gaietako Sailak (Lan Merkatuaren Errolda-eskaria) sustatutako estatistika-eragiketetako informazioa baliatu dugu:

- *Enpresak aztertze*ko, Eustatek emandako informazioari —datu-basearen ustiapen espezifikoa— esker, kultura-eremuko ekonomia-jardueratzat har daitezke Kultura-produktuen handizkako eta txikizkako merkataritza; Arte Galeriak; eta Argazkigintza (Ministerioak ez ditu barnean hartzen, 3 zifrako informazioa baino ez baitu lantzen).
- *Enpleguaren*¹ analisiari dagokionez, Lan Merkatuaren Erroldako datuetan oinarritutako langile kopuruaren hurbilketa egin da (kultura-zerbitzuak, argitalpenak, arte grafikoak eta aldakietarako) eta gainerako jardueren kasuan estimazio bat egin da, informazioa beste eragiketetako enpresen enplegu-geruzen arabera interpretatuz.

1.2. BIGARREN GOGOETA. INFORMAZIOA XEHATU ETA ESKURATZEKO DESOREKAK

Hainbat informazio-iturri erabili dugunez, datuen sakontasun-mailan heterogeneotasun handia dagoela ikusi ahal izan dugu, informazio motaren arabera 2, 3 eta baita 5 zifra ere erabiltzen baitira. Esate baterako:

- Ministerioak DIRCE-Enpresen Aurkibide Zentraleko informazioarekin lan egiten du, hiru zifrekin, eta, beraz, ez ditu aintzat hartzen EJSN jakin batzuk nahiz eta kultura-eremukotzat jo, desagregazio-maila handiagoa —5 zifra— eskatzen dutelako. Aldi berean, zenbait EJSNtan txertatutako jarduera jakin batzuk ez lirateke sektorearen barruan sartu beharko. Dena den, iturri hori ere kontuan izan dugu, EAE gainerako Autonomia Erkidegoekin alderatuta non kokatzen den ikus baitezakegu.
- Eustatek emandako DIRAEn, aldiz, 5 zifrako informazioa lantzen da; horrek malgutasun handiagoz «jokatzeko» aukera ematen du eta kultura-eremuan txertatzen diren jarduerak hobeto zehatz ditzakegu. Eragiketa horretan zehaztasun-maila handiagoz definitzen dira EAEko kultura-jarduerak.

Azkenik, datuen erreferentziazko urteak ere aldatu egiten dira iturriaren eta eragiketaren arabera. Edonola ere, informazioaren panoramika ahalik eta eguneratuena egin nahi izan dugu, bereziki 2008ko eta 2009ko datuak zehaztuz.

1 Eustatek ez du datunik eman horri buruz; enplegu-geruzen araberrako enpresa-banaketari buruzko informazioa baino ez du eman.

2. ENPRESAK ETA ESTABLEZIMENDUAK

Enpresak aztertzeko, batik bat, hiru informazio-iturri erabili ditugu, informazioaren hainbat maila eta garapen lortu ahal izateko, aurre-gogoetetan aipatu ditugun berezitasunak direla-eta.

- *Informazioaren lehenengo geruza/maila:* KEB/Kultura Sailak bultzatutako estatistika-eragiketarako informazioa baliatuz, kultura-eremuko enpresa/erakundeei buruzko lehen ikuspegi zehatza eman dezakegu, betiere EJSN 92- Jolaseko eta kulturako jarduerekin loturik:
 - Liburutegiak, Museoak, Arte eszenikoetako ekoizleak, Arte eszenikoetako programatzaileak, Ikusizko arteak produzitzeko eta erakusteko egiturak, Ikus-entzunezko industria, Industria diskografikoa eta Artisau-industriak.
- *Informazioaren bigarren geruza/maila:* DIRAE-2008 aurkibidetik Eustatek emandako 5 zifrako informazioari esker, Europar Batasunak (eta Kultura Ministerioak) egiten duen zedarrizetik gertuko ikuspegia lor dezakegu, eta horretaz gain, EAEn kulturak duen garrantzia ere azter dezakegu, betiere beste ekonomia-jarduera batzuekin alderatuta. Kultura-eremuko ekonomia-jardueratzat hartzen dira honako hauek:
 - Irrati, zinema, telebista eta ikuskizunetako jarduerak, Liburutegietako, artxiboetako, museoetako eta bestelako kultura-instalazioetako jarduerak, Albiste-agentzi jarduerak, Kultura-produktuen merkataritza, Argitalpenak, arte grafikoak eta euskarri grabatuen aldakiak, Argazkigintza jarduerak, Arte salerosketa-galeriak, Musika-tresnak egitea eta soinu eta irudi aparatuak egitea.

Kultura Ministerioak erabiltzen duen DIRCE 2008 iturria ere kontuan izan dugu; lehen aipatu ditugun gabeziak dituen arren (alegia, 3 zifrako datuekin baino ez du lan egiten), EAEn analisi konparatiboa egiteko aukera ematen digu beste Autonomia Erkidego batzuei dagokienez. Azkenik, eta informazio osagarri moduan, *2008ko Lan Merkatuaren Errolda (eskaria)* erabili dugu EAEko kultura-eremuko *enpresetan Giza Baliabideen kudeaketari* buruzko alderdi interesgarriak hobeto ezagutzeko. Informazio hori guztia abiapuntu hartuta, kapitulu honen azkeneko atalean enpresen banaketa egin dugu, kultura-jardueren arabera.

2.1. KULTURA-EREMUKO ENPRESEI LEHEN BEGIRATUA (LEHEN GERUZA/MAILA)

Informazioaren lehen mailarekin, EAEn guztira 1.032 enpresa/azpiegitura zenbatu ditugu bereziki jolaseko eta kulturako jardueretan dabiltzanak, eta zehazkiago, ondarearekin (museoak eta liburutegiak, zehatz-mehatz), arteekin eta kultura-industriekin loturiko jardueretan. Ekonomia-jardueraren arabera, honako alderdi hauek nabarmenduko ditugu:

1. irudia. Enpresen/azpiegituren banaketa EAEn jardueraren arabera. (balio absolutua). 2007

Kultura-eremuak	Kultura-arloko enpresak/ azpiegiturak	
ONDAREA		
Liburutegiak	272	% 33,2
Museoak	71	
ARTEAK		
Arte eszenikoetako produktoreak	68	% 29,5
Arte eszenikoetako programatzaileak	114	
Ikusizko arteak produzitzeko eta erakusteko egiturak	122	
INDUSTRIAK		
Ikus-entzunezko industria	84	% 37,3
Industria diskografikoa	24	
Artisau-industriak	277	
GUZTIRA	1.032	% 100,0

Iturria: Geuk egina, KEB/Kultura Sailaren datuak oinarri hartuta.

— *Museoak eta Liburutegiak*: aztertu dugun multzo osoaren % 33,2 osatzen dute eta zeregin horietan jarduten duten kultura-ekipamenduak 343 dira.

- 2007. urtean 272 udal-liburutegi zeuden EAEn, eta 2008an 71 museo. Liburutegi gehienak Bizkaian daude eta Gipuzkoan, berriz, museoak dira nagusi, horrelako kultura-azpiegituren ia erdia Gipuzkoan baitago.
- o Azterketa honetan artxiboen eragiketaren emaitzak falta zaizkigu ondarearen ikuspegia osatzeko; azterlan hori gaur egun gauzatze-prozesuan dago.


2. irudia. Liburutegi publikoen eta Museoen kopurua Lurralde Historikoaren arabera. (balio absolutua). 2007 eta 2008

Lurralde Historikoaren	Liburutegi publikoak 2007	Museoak eta museografiako bildumak 2008	GUZTIRA
EAE	272	71	343
Araba	41	16	57
Bizkaia	132	21	153
Gipuzkoa	99	34	133

Iturria: Geuk egina, Kultura Sailaren datuak oinarri hartuta.


— *Kultura Industriak:* Kultura-industriaren definizioari jarraiki, EAEn guztira 385 enpresa har ditzakegu kultura-enpresatzat. Batik bat, Artisau-industriako enpresak (% 72,0; kontuan izan behar da, enpresak baino gehiago, autonomoak izaten direla) dira, eta horien atzetik ikus-entzunezkoak (% 21,8), eta diskografikoak (% 6,2) datoz. Lurralde Historikoaren arabera, Gipuzkoan enpresa-parkea zertxobait garatuagoa da —kuantitatiboki— aztergai ditugun hiru jardueretan.

3. irudia. Kultura-industrien banaketa jardueraren arabera. 2007



Bizkaiko egoera Gipuzkoakoaren oso antzekoa da, bereziki ikus-entzunezko enpresei eta enpresa diskografikoei dagokienez. Arabaren kasuan, kultura-industriaren presentziak nabarmen egiten du behera, eta enpresa guztien % 10,6 baino ez dira (esate baterako, ez du diskografika bat bera ere).

4. irudia. Kultura-industrien banaketa LHren arabera. 2007



Emaiza horiek are deigarriagoak dira azterketan biztanleriaren aldagaia ere txertatuz gero. Hori horrela izanik, Gipuzkoa buru da kultura-industrien kopuruari dagokionez, aztertutako jarduera guztietan; Araban eta Bizkaian, ordea, zenbatekoak antzekoak dira. Jardueraren arabera, artisaui-industrian enpresa asko sartzen dira EAEko biztanleen kopuruari dagokionez; eta kontrako muturrean industria diskografikoa dago, enpresa bakarra baitu 100.000 biztanleko.


5. irudia. Kultura-industrien enpresa-ratioa 100.000 biztanleko. 2007

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
kus-entzunezko industria	2,2	3,3	5,5	3,9
Industria diskografikoa	0,0	1,0	1,8	1,1
Artisau-industria	10,8	8,7	20,3	12,8
GUZTIRA	13,0	12,9	27,6	23,0

Nota: Biztanleriaren ratioa kalkulatzeko Estatistikako Institutu Nazionalaren demografia-eroldako datuak —2009ko urtarrilaren 1ekoak— baliatu ditugu. Geuk egina, KEB/Kultura Sailaren datuak oinarri hartuta.

- *Arteak*: Kultura-arteetan jarduten dute guztira 304 agentek, eta horienartetik, ikusizko arteen produkzio eta erakusketan aritzen direnak nabarmentzen dira (% 40,1), baita arte eszenikoetako programatzaileak (% 37,5) ere, eta ez hainbeste arte eszenikoetako produktoreak (% 22,4).


6. irudia. Kultura-arteetako agenteen banaketa jardueraren arabera. 2007



Iturria: Geuk egina, KEB/Kultura Sailaren datuak oinarri hartuta.

Lurralde Historikoaren arabera, arteetako agenteen azpiegituren eta jardueraren banaketa bat dator hiru lurralde historikoen demografia-pisuarekin. Izan ere, Bizkaia eta Gipuzkoa batuta, agenteen ia % 85 osatzen dute.

7. irudia. Kultura-arteetako agenteen banaketa LHren arabera. (balio absolutua eta ehunekoa). 2007



Iturria: Geuk egina, KEB/Kultura Sailaren datuak oinarri hartuta.

Jarduera motari erreparatuta:

- Ikusizko arteak nabarmentzeko modukoak dira bereziki Araban eta Bizkaian, eta maila txikiagoan, arte eszenikoetako produktoreak.
- Gipuzkoan, arte eszenikoetako programatzaile eta erakusleek garrantzi handiagoa dute, eta arte eszenikoetako produktoreen batez bestekoa gainditzen dute.

Hala ere, emaitzak aldatu egiten dira biztanleriaren aldagaiaren arabera. Izan ere, Arabak eta Gipuzkoak Bizkaia gainditzen dute 100.000 biztanleko agente kopuruari dagokionez, eta EAEko maila ere gainditzen dute, ehunekoetan. Jarduerearen arabera, Araban ikusizko arteak nabarmentzen dira, eta Gipuzkoan arte eszenikoak.

8. irudia. Kultura-arteetako agenteen banaketa jarduera motaren eta LHren arabera. 2007

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
Ikusizko arteak	% 49,0	% 42,2	% 33,9	% 40,1
Arte eszenikoetako produktoreak	% 17,6	% 19,3	% 28,0	% 22,4
Arte eszenikoetako programatzaileak/ erakusleak	% 33,3	% 38,5	% 38,1	% 37,5

Iturria: Geuk egina, KEBren Kultura-industrien estatistika 2007 oinarri hartuta.

9. irudia. Kultura-arteetako agenteen kopurua 100.000 biztanleko. 2007

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
Ikusizko arteak	8,0	4,9	5,7	5,6
Arte eszenikoetako produktoreak	2,9	2,3	4,7	3,1
Arte eszenikoetako programatzaileak/ erakusleak	5,4	4,5	6,4	5,2
GUZTIRA	19,8	16,2	23,5	19,1

Oharra: Biztanleriaren ratioa kalkulatzeko Estatistikako Institutu Nazionalaren demografia-eroldako datuak —2009ko urtarrilaren 1ekoak— baliatu ditugu.
Iturria: Geuk egina, Kulturaren Euskal Behatokiak egindako Kultura-industrien estatistika 2007 oinarri hartuta.

2.2. KULTURA-EREMUKO ENPRESEI BURUZKO IKUSPEGI ZABALAGOA (BIGARREN GERUZA/MAILA)

Bigarren ikuspegi hau Eustatek emandako informazioan (DIRAE) oinarritzen da, eta kultura-eremuko ekonomia-jardueratzat hartzen ditu Kultura-produktuen merkataritza (Papergintzako gaien, liburuen, egunkarien eta antzekoen handizkako eta txikizkako merkataritza), Arte Galeriak eta Argazkigintza (Argazkigintzako errebelatua, inprimaketa eta handitzeak egiteko laborategiak, eta Argazkigintzako lan-gelak).


Kultura-eremuko ekonomia-jarduerak garrantzi handia dute. Bigarren ikuspegi honetatik, eta 2008ko datuei gagozkiela, EAEn guztira 6.295 enpresa kokatzen dira, Bizkaian eta Gipuzkoan presentzia kuantitatibo handiagoa dutela. EAeko enpresa guztiei dagokienez, kultura-eremuko jarduerak enpresen % 3,5 osatzen dute.

10. irudia. EAeko adierazleak (Eustat-DIRAE 2008 oinarri hartuta).

EAE	GUZTIRA
Enpresak, guztira	179.973
Kultura-eremuko enpresak, guztira	6.295
Kultura-eremuko establezimenduak, guztira	6.522
Kultura-eremuko enpresen %-a enpresen guztirakoarekiko	3,5%
Establezimendu kop./enpresa kop. ratioa (kultura-eremua)	1,04
Establezimendu kop./enpresa kop. ratioa (sektore guztiak)	1,13

Establezimendu kopurua 6.522 da, hau da, enpresa bakoitzeko establezimendu ratioa 1,04 da, ekonomia-jarduera guztien ratio orokorra baino zertxobait beheraxeago (1,13 baita).

11. irudia. Kultura-eremuko ekonomia-jarduera duten enpresen banaketa Lurralde Historikoaren arabera. 2008



Iturria: Eustat. DIRAE 2008.

- *Jarduera nabarmenenak*. Enpresen artean ekonomia-jarduera nagusia Irratiko, zinemako, telebistako eta ikuskizunetako jarduerak dira (% 36,1), eta, zehazkiago, arteetako eta ikuskizunetako jardueretan jarduten duten enpresak dira nagusi (1.745 enpresa). Kultura-produktuen merkataritzak (% 24,2) eta Argitalpenak, arte grafikoak eta euskarri grabatuen aldakiek (% 22,1) ere presentzia garrantzitsua dute EAEko enpresa-sarean.

12. irudia. Kultura-eremuko ekonomia-jarduerak dituzten establezimenduen banaketa jarduera nagusiaren eta guztirakoaren gaineko %-aren arabera. Eustat. 2008

Ekonomia-jarduera	A.E.	% b.
Irratiko, zinemako, telebistako eta ikuskizunetako jarduerak	2.356	% 36,1
Kultura-produktuen merkataritza	1.581	% 24,2
Argitalpenak, arte grafikoak eta euskarri grabatuen aldakiak	1.446	% 22,1
Argazkigintzako jarduerak	544	% 8,3
Liburutegi, artxibo, museo eta beste kultura-erakunde batzuetako jarduerak	337	% 5,2
Albiste-agentzietako jarduerak	171	% 2,6
Arteko salerosketa-galeriak	63	% 1,0
Musika-tresnak egitea	14	% 0,2
Soinu eta irudiko aparatuak egitea	10	% 0,2
GUZTIRA	6.522	% 100,0

Iturria: Eustat. DIRAE 2008.

- *Enpresa-dimentsioa*. EAEko kultura-eremuko enpresa-sarean oso garrantzi handia dute enpresa txikiek eta autonomoek. Enpresa guztien ia % 95 0-10 enpleguko tartean dago, 0-2 enpleguko enpresak nagusi izanik (% 78,4). Mikroenpresak (gehienez 10 langilekoak) % 16 inguru dira.

13. irudia. Kultura-eremuko ekonomia-jarduerak dituzten enpresen banaketa enplegu-bolumenaren arabera. Eustat. 2008

Enpresa	zb.	% b.
Mikroenpresa	1.032	% 15,8
0-2 enpleguko enpresa	5.113	% 78,4
Enpresa txikia	344	% 5,3
Enpresa ertaina eta enpresa handia	33	% 0,5
GUZTIRA	6.522	% 100,0


Iturria: Eustat. DIRAE 2008.

- *Enpresa ertainak* (10-49 enplegu) honako jarduera hauetan baino ez dira agertzen: Argitalpen eta arte grafikoen jardueretan; irriti, zinema, telebista eta ikuskizun

jardueretan; eta kultura-produktuen merkataritza. Enpresa handirik ia ez dago.

- *Gainerako sektoreekin konparatuta.* Kultura-eremuko ekonomia-jarduerak dituzten enpresen tamaina EAEko ekonomia-jarduera guztiarekiko alderatzen badugu, kultura-arloko enpresa-sareak oso antolaketa-eredu txikiak dituela ikusiko dugu, gainerako sektoreen batez bestekoaren azpitik.

14. irudia. Establezimenduen banaketa enplegu-bolumenaren arabera. Eustat. 2008



Iturria: Eustat. DIRAE 2008

2.3. EMAITZAK KONPARATZEA BESTE AUTONOMIA ERKIDEGO BATZUEKIN

Kultura Ministerioak emandako datuei esker —aipatutako gabeziak gabezia— beste Autonomia Erkidegoekin konparazioak egin ditzakegu. Zeharkako ikuspegi horretan ez dira sartzen kultura-eremuko beste ekonomia-jarduera batzuk, hala nola Merkataritza, Argazkigintza eta Arte Galeriak.

DIRCEko datuen arabera, EAEn guztira 3.545 enpresa zeuden 2008. urtean kultura-eremuko ekonomia-jarduera jakin batzuetan aritzen zirenak. Hori horrela izanik, EAE bosgarren postuan dago Autonomia Erkidegoaren araberako zerrendan; aurretik Madril eta Katalunia ditu, sektoreko aitzindari baitira (bien artean kultura-enpresen % 47 osatzen dute), baita Andaluzia eta Valentziako Erkidegoa ere.

Ikuspuntu horretatik begiratuta, eta Autonomia Erkidego guztiei dagokienez, EAEn enpresen % 5,1 dago.

15. irudia. Kultura-eremuko ekonomia-jarduera jakin batzuetako enpresa kopurua, Autonomia Erkidegoaren eta guztirakoaren gaineko ehunekoaren arabera. Kultura Ministerioa. 2008

Autonomia Erkidegoa	A.E.	% b.
Madrilgo Erkidegoa	18.217	% 26,0
Katalunia	14.524	% 20,7
Andaluzia	8.014	% 11,4
Valentziako Erkidegoa	6.361	% 9,1
EAE	3.545	% 5,1
Gainerako AEak	19.448	% 27,7
GUZTIRA	70.109	% 100,0

Iturria: Kultura Ministerioa. DIRCE 2008.

Ministerioak 3 zifrako informazio-baseak erabiltzen ditu. Bere azterlanean ez daude sartuta Merkataritza, argazkigintza eta arte-galeriak.

Lehen ikuspegi hori zehaztasun handiagoz aztertuko dugu azterlanean bi adierazle berri sartzen baditugu:

- Alde batetik, Autonomia Erkidegoko enpresen guztirako kopurua; horri esker, kultura-arloko ekonomia-jardueren garrantzia zenbatekoa den jakingo dugu gainerako ekonomia-jardueretik. Ildo beretik, enpresa guztien multzoari dagokionez (175.303), kultura-eremuko jardueren garrantziari (3.545 enpresa) erreparatuz gero, EAE goi-postuetako autonomia-erkidegoetatik gertuago dago.

16. irudia. Kultura-eremuko ekonomia-jarduera jakin batzuetako enpresen ehunekoa, Autonomia Erkidego bakoitzeko enpresen guztirakoaren gainean. 2008

Autonomia Erkidegoa	Kultura-enpresen %-a guztirakoaren gainean
Madrilgo Erkidegoa	3,5
Katalunia	2,3
EAE	2,0
Valentziako Erkidegoa	1,7
Andaluzia	1,5
Espainia	2,0

Iturria: Geuk egina, Kultura Ministerioaren datuak oinarri hartuta.

- Bestetik, Autonomia Erkidegoko biztanleria; horri esker, «kultura-hornidura» esaten zaionaren berri izango dugu, beste sektore batzuetan egiten denaren ildotik; alegia, enpresen eta establezimenduen kopurua 1.000 biztanleko. Horri gagozkiola, kultura-hornidurari dagokionez, EAE Autonomia Erkidego dinamikoenetatik hurbil dago.

17. irudia. Kultura-hornidura: kultura-establezimenduen kopurua AEko 1.000 biztanleko. 2008

Autonomia Erkidegoa	Kultura-hornidura
Madrilgo Erkidegoa	2,9
Katalunia	2,0
EAE	1,7
Valentziako Erkidegoa	1,3
Andaluzia	1,0

Iturria: Geuk egina, Kultura Ministerioaren datuak oinarri hartuta.

3. ENPLEGUA ETA PERTSONEN KUDEAKETA KULTURA EREMUKO ENPRESETAN

Kultura-eremuko ekonomia-jarduerako enplegua aztertuz gero, enpresen analisisian bezalaxe, hainbat ikuspegi daudela konturatuko gara, erabilitako informazio-iturriaren arabera, eta, bereziki, eremu horren definizioaren nondik norakoaren arabera. Azterketa edo analisi hori egiteko, honako eragiketa hauekin lan egin dugu:

- *Informazioaren lehenengo geruza/maila*: kultura-zerbitzuetako enpleguaren hurbilketa; Behatokiak berak sortutako informaziotik edo Kultura Sailak sustatutako eragiketetatik ateratako datuak. Ez dugu ahaztu behar argazki hori oraindik ere eraikitzen ari dela; izan ere, interesekoak diren zenbait eragiketa (Artxiboak edo Gastu Publikoa, esaterako) gauzatzeko prozesuan daude orain eta horiei esker, informazio hori findu ahal izango dugu. Gaur egun ditugun datuekin, honako jarduera hauei bereziki erreparatuko diegu (batik bat, EJSN 921, 922, 923, 925): kultura-industriak, arteak, museoak eta liburutegiak.
- *Informazioaren bigarren geruza/maila*: Kultura-eremuko beste jarduera batzuk (merkataritza, kultura-produktuak egitea...) txertatzeko ikuspegitik begiratuta, eta Lan Merkatuaren Erroldako (eskaria) informazioaren bidez, kultura-zerbitzuetako enpleguen (EJSN 92ko jarduera guztiak barnean hartuta) azterketa osatu dugu, betiere modu orientagarrian (Enplegu eta Gizarte gaietako Sailak adierazi duenari jarraiki): argitalpena, arte grafikoak eta kultura-eremuko aparatuak egitea (221-223, 323 eta 363). Hasieran ezinezkoa izan da bestelako ekonomia-jarduerak txertatzea eremu horretan, informazioa modu gehigarrian eman baita (esate baterako, ez dira sartzen merkataritza edo argazkigintzako jarduerak), baina gabezia horiek konpontzeko, estimazio bat egin dugu EJSN horietako enpresetako enplegu-geruzak baliatuta.

Azkenik, eta zeharkakotasun handiagoz, Kultura Ministerioak emandako datuak txertatu ditugu analisisian; dokumentu honen aurkezpenean esan dugun moduan, datu horien bidez kultura-enplegutzat zer hartzen den oso modu espezifikoan definitzen da.

3.1. KULTURA-EREMUKO ENPLEGUARI LEHEN BEGIRATUA (LEHEN GERUZA/MAILA)

KEBek eta Kultura Sailak sustatutako estatistika-eragiketei esker, aztergai hartutako jardueretako enpleguaren zifretara asko hurbil gaitzke, eta, bereziki, enplegu mota horren ezaugarri jakin batzuk (eragiketa horiei dagozkien txostenetan jasotakoak) xehatu ditzakegu. Gogoan izan enpleguaz ari garenean aztertutako jardueretako lanbide guztiak zenbatzen direla, nahiz eta jarduera administrazioan, zuzendaritzan edo, bereziki, kultura-arloan garatu.

Eragiketa horien bidez, guztira 3.352 langile identifikatu ditugu, batik bat, kultura-industrietan kokatutakoak (% 44), baina kontuan izan behar da zifra horretan sartuta daudela artisauak ere (500 baino gehiago). Bigarrenik, eta garrantzi kuantitatiboaren arabera, ondare-jarduerak (museoak eta liburutegiak) aipatuko ditugu, ia % 40arekin, eta hirugarrenik, kultura-arteak (% 17).

18. irudia. Enpleguen banaketa EAEn, kultura-eremuen arabera.

Kultura-eremuak	Enpleguak	%
ONDAREA		
Liburutegiak	655	% 39,0
Museoak	653	
ARTEAK		
Arte eszenikoetako produktoreak	184 ¹	% 17,0
Arte eszenikoetako programatzaileak	236 ²	
Ikusizko arteak produzitzeko eta erakusteko egiturak	149 ³	
INDUSTRIAK		
Ikus-entzunezko industria	916 ⁴	% 44,0
Industria diskografikoa	38 ⁵	
Artisau-industriak	521	
GUZTIRA	3.352	% 100,0

¹ Lanaldi osoan jardun duten langileen pareko kalkulua.

² Kalkulua lanaldi osoko enplegu zuzen egonkorren batez bestekoa kontuan hartuta egin da, eta soilik plantillako langileak kontuan hartuta, azpikontratutako langileak kanpo utzita.

³ 2007 urte osoan zehar lanaldi osoko lanen pareko kalkulua.

⁴ Lanaldi osoan jardun duten langile baliokideen kopurua.

⁵ Lanaldi osoan jardun duten langileen pareko kalkulua 2007 ekitaldi osoan zehar.

Iturria: Geuk egina, sektore-estatistiketan emandako datuak oinarri hartuta.

— *Kultura-ondarea: liburutegiak eta museoak.* Liburutegi eta museoak aztertzeke ohikoak diren estatistika-eragiketak ezarrita, aztergai ditugun gaiei buruzko bilakaera aztertzeke aukera dugu.

- Liburutegien kasuan, eta 2007ko datuekin, guztira 655 langile zenbatu ziren kultura-ekipamendu horietan; aurreko urtearekiko beherakada txiki bat izan zen

enpleguan. Langileen % 70-80 kultura-profesionalak dira (liburutegiko langileak, laguntzaileak). 4 laguntzaile bakoitzeko liburuzain-profil bat kontabilizatu da. Enpleguaren ehuneko handi bat azpikontrataturako langileei dagokie, bereziki, garbiketako, segurtasuneko eta antzeko jardueretarako.

19. irudia. Liburutegi publikoetako langileen bilakaera Lurralde Historikoaren arabera. 2002-2007 (balio absolutua)

	2002	2004	2005	2006	2007
EAE	569	582	764	717	655
Araba	57	67	101	95	80
Bizkaia	315	315	393	375	345
Gipuzkoa	197	200	270	247	230

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila.

- Museoak (2008): EAEko 71 museoetan guztira 653 langile daude, batik bat, emakumeak (% 56). Teknikariak (kontserbatzaileak, laguntzaileak, zaharberritzaileak, liburuzainak...) dira nagusi (% 31), baina zeharkako enpleguen ehunekoa ere esanguratsua da; adibidez, administrazio-langileak (% 22), edo zaintzan eta mantentze-lanetan aritzen direnak (% 17,6). Kontratazioaren zati garrantzitsu bat lanaldi partzialekoa da (% 32).


20. irudia. Museoetako langileen bilakaera Lurralde Historikoaren arabera. 2002-2008 (balio absolutua)

	2002	2004	2006	2008
EAE	539	595	732	653
Araba	73	103	134	124
Bizkaia	275	273	330	245
Gipuzkoa	191	219	268	284

Iturria: Museoak eta bilduma museografikoak. Txosten estatistikoa 2008. Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila.

— *Kultura-industriak*. Kultura-industrian guztira 1.475 langile ari dira, bereziki, ikus-entzunezkoen industrian (% 62,1) eta artisau-industrian (% 35,3).


21. irudia. Kultura-industrietako enpleguaren banaketa, jardueraren arabera. 2007



Iturria: Geuk egina, sektore-estatistiketan emandako datuak oinarri hartuta.

Enplegua Lurralde Historikoaren arabera aztertuz gero, egoera asko aldatzen da goian enpresei buruz egindako azterketari dagokionez. Gogora dezagun Gipuzkoan zegoela enpresa-sare handiena kuantitatiboki.

22. irudia. Kultura-industrietako enpleguaren banaketa, lurralde historikoaren arabera. 2007




Iturria: Geuk egina, sektore-estatistiketan emandako datuak oinarri hartuta.

Kasu honetan, enpleguaren % 50,2 Bizkaian dago, Gipuzkoakoa gaindituz (% 44,5). Horretaz gain, Bizkaian kokatutako enpresen plantillak zertxobait handiagoak dira aztertu ditugun hiru jardueretatik bitan (ikus-entzunezkoen industria eta diskografikoa). Zifra horiei erreparatuta, Bizkaian kokatutako enpresak handiagoak direla esan dezakegu.

Oro har, enpresen batez besteko tamaina askoz handiagoa da ikus-entzunezkoan industrietan, batez beste, enpresa bakoitzean 11 enplegu izanik; artisau-industrietan, aldiz, batez bestekoa 1,9 enplegu/enpresa da, eta industria diskografikoetan 1,6 enplegu/enpresa.


— *Kultura Arteak*. Arteen eremuko enpleguan 569 lanpostu zenbatu ditugu; batez ere, arte eszenikoetako programazioaren eta erakusketaren arloan kokatzen dira (% 41,5), baina arte eszenikoetan eta ikusizko arteetan ere badu garrantzia enpleguak (% 32 eta % 26, hurrenez hurren). Bizkaiko (% 46) eta Gipuzkoako (% 40) enplegua da nagusi.

23. irudia. Kultura-arteetako enpleguaren banaketa, jardueraren arabera. 2007



Iturria: Geuk egina, KEBek egindako Kultura-industrien estatistika 2007 oinarri hartuta.

24. irudia. Kultura-arteetako enpleguaren banaketa, lurralde historikoaren arabera. 2007



Iturria: Geuk egina, KEBek egindako Kultura-industrien estatistika 2007 oinarri hartuta.

Enpresa handienek arte eszenikoetako produkzioan jarduten dute, enpresa bakoitzeko 4,1 enplegu izanik, batez beste. Gainerako enpresak langile bakarrekoak dira, batez beste enplegu 1 izanik enpresa bakoitzeko.

Lanbide-kategoria nagusiak kudeaketako langileak dira, bereziki ikusizko arteetan (ia % 64) eta arte eszenikoetako programatzaile/erakusleetan (% 45). Arte eszenikoetako produkzioko enpresetan, enplegu artistikoak gailentzen dira. 10 enplegutik zazpik kontratu mugagabea dute, baina aipatu behar da arte eszenikoetako produktoreen kasuan, langileen % 42tik gora behin-behinekoa dela.

3.2. KULTURA-EREMUKO EKONOMIA-JARDUERAKO ENPLEGUARI BURUZKO IKUSPEGI ZABALAGOA (BIGARREN GERUZA/MAILA)

Lan Merkatuaren Erroldako (eskaria) datuekin eta egindako estimazioarekin, informazioaren bigarren geruza honekin loturiko enpleguaren berri eman dezakegu, modu orientagarrian¹.

Datu horietan, dagoen enplegu guztia sartzen da (alegia, lan-arlo guztiak: artistikoa, teknikoa, administrazioa, zuzendaritza), betiere aipatutako jardueretan. Dokumentu honen hasieran aipatu dugunez, LMEko informazioa osatu behar izan dugu estatistika-estimazio batekin, kultura-produktuen merkataritzaren kasuan.

Hain justu, jarduera horietan, 19.400 enplegu inguru zeuden 2008an, eta hor nabarmentzekoak dira argitalpena, arte grafikoak, kultura-aparatuak egitea, eta argazkigintzako jarduerak (% 40,2), eta kultura-zerbitzuak (% 34,8), eta hein txikiagoan, merkataritza.

25. irudia. Enpleguaren banaketa EAEn, kultura-eremuko ekonomia-jardueraren arabera.

Ekonomia-jarduerak	Enpleguak	%
Kultura-zerbitzuak ¹	6.724	% 34,8
Argitalpena, arte grafikoak, euskarri grabatuen aldakiak, kultura-eremuko aparatuak egitea, eta argazkigintza	7.772	% 40,2
Kultura-produktuen merkataritza (arteko salerosketa-galeriak barnean hartuta)	4.844	% 25,0
GUZTIRA	19.340	% 100,0

1. Zifra horretan sartuta daude albiste-agentzien jarduerak, eta irratiko eta telebistako jarduerak. Iturria: Geuk egina, LME eta estimazioa oinarri hartuta.

EAEko enpleguen guztirakoari dagokionez, kultura-jarduerak % 1,9 osatzen dut.

26. irudia. EAEko adierazleak. (Eustat - DIRAE)

EAE	GUZTIRA
Kultura-eremuko ekonomia-jarduera duten enpresetako enpleguak, guztira	19.340
Enpleguak, guztira (sektore guztiak)	995.375
Kultura-enpleguaren %-a/gainerako jarduerak	% 1,9

¹ Enplegu eta Gizarte gaietako Sailak adierazi digun moduan, datuak orientagarriak baino ez dira. Izan ere, LME-Eskaria gorapena adarren multzo handien arabera taldekatze batean oinarritzen baita. Hartara, gorapena eginda adar multzo handi horietan oinarritutako ustiapena baino ezin da egin. Horretaz gain, ordezteak adar multzo handi horien barnean gertatzen dira, eta ez adarren arabera. Beraz, ezin da bermatu emaitzak zehatz-zehatzak izango diren. Dena den, 2004ko eta 2008ko datuak koherentetzat har ditzakegu, bai, behintzat, informazioa orientagarria dela esateko adina.

3.3. KULTURA-EREMUKO EKONOMIA-JARDUERAKO ENPLEGUAREN HURBILKETA

Ikuspegia zeharkakoagoa izanik, eta Kultura Ministerioak «kultura-enplegua» nola definitzen duen kontuan hartuta, 2008ko Biztanleria Aktiboaren Inkestako datuen arabera, kultura-eremuko jardueretan guztira 25.200 pertsona ari dira lanean; zenbateko horretan sartuta daude honako hauek:

- Kultura-eremuko ekonomia-jarduera duten enpresetako edozein enplegu, hau da, enpresen edozein arlotakoak (langile artistikoak, teknikariak, administraziokoak, zuzendaritzakoak eta abar).
- Kultura-enpleguak (idazleak, artistak, liburuzainak eta abar), garatzen duten jarduera edozein izanik ere, kultura-enpresak ez badira ere.

Ikuspegi horretatik begiratuta, eta EAEko gainerako langileei dagokienez, kultura-enpresetan lan-indarraren % 2,5 ari da (AE guztien kasuan baino zertxobait gutxiago, % 2,8 baita). Frantzia, esaterako, ehuneko hori % 2 da (2005eko datuak). Ez ahaztu kultura-enpresen ehunekoa % 3,6 dela enpresa guztien gainean. Kontraste hori eginda, EAEn enpresek duten dimentsio eskasa agerian geratzen .

27. irudia. EAEko adierazleak. (Kultura Ministerioa)

EAE	GUZTIRA
Kultura-eremuko ekonomia-jarduera duten enpresetako enpleguak, guztira	25.200
Enpleguak, guztira (sektore guztiak)	995.375
Kultura-enpleguaren %-a/gainerako jarduerak	% 2,5

Eskura ditugun estatistikei erreparatuta, 2004-2008 aldian sektore horretako enpleguaren bilakaera azter dezakegu; hona hemen ondorioak:

- Oro har, kulturaren sektorean aldakortasun handia dago enplegu-bolumenari dagokionez. 2004. urtetik aurrera, EAEko enpresen plantillak hazi egin dira % 6, eta lehen begiratuan, zifra hori itxaropentsua da. AE guztietan, 2004-2008¹ aldiko enpleguaren bilakaera % 12 ingurukoa da.

¹ Bilakaera aztertzeko, aurreko 5 urteak hartzen dira erreferentziazat (informazioa baldin badago).

- Hala ere, 2005. urtean jarduerak maila gorena lortu zuen eta sektorean 29.000 enplegu izatera iritsi zen. 2005eko datu hori erreferentziatzat hartuz gero, enplegu-galera 3.700 enplegukoa da (2005-2008). Azken bi urteetako zifrak alderatzen baditugu, 2008an 500 bat lanpostu berreskuratu ziren 2007arekin alderatuta.

Nolanahi ere, bi langile mota bereiz ditzakegu: enplegu egonkorragoa dutenak eta «ibiltariagoak», urtean zehar sektorean sartu- irtenean dabilzanak; gutxi gorabehera 1.000-1.500 pertsona dira.

28. irudia. Enpleguaren bilakaera kultura-enpresetan eta gainerako ekonomia-jardueretan. 2004-2008

	2004	2005	2006	2007	2008
EAE					
2. hiruhilekoa	21,9	27,5	25,3	24,7	23,3
Urteko batez bestekoa	22,0	28,9	24,3	24,7	25,2
AEak, GUZTIRA					
Urteko batez bestekoa	499,1	517,1	523,9	553,7	562,0

Iturria: Kultura Ministerioa. Biztanleria Aktiboaren Inkesta.

3.4. GIZA BALIABIDEEN KUDEAKETA KULTURA-JARDUERAKO ENPRESETAN

Lan Merkatuaren Erroldako datu-basea aztertuta, kultura-enpresek giza baliabideak¹ kudeatzearekin loturik izaten dituzten arazoak ezagutu ditzakegu.


Enpresa horiek langileak kontratatzeke garaian izaten dituzten eragozpen nagusiak arazo ekonomikoak eta finantzarioak dira, gehienbat; zehazkiago, salmenta handiagoak egiteko itxaropenik eza (parte-hartzaileen ia % 40k aipatu du) eta soldatek eta bestelako kostuek eragiten dituzten kostu handiegia.

Enpresen % 22k baino gehiagok finantzaketa eta ekonomia arazoak izan dituzte eta horren ondorioz, kontratazio berriak egiteko itxaropenak murriztu (% 33,6), enpleguak galdu edo enpresa itxi (% 22,1), edo behin-behineko itxi beharra (% 16,5) gertatzen dira.

Enpresa askok (% 34k) arazoak ditu langile egokiak kontratatzeke, enpresaren premietara egokitutako prestakuntza dutenak. Zailtasun hori, gehienbat, irrati, zinema, telebista eta ikuskizun jardueretan sumatzen da, baita albiste-agentzia, liburutegi, artxibo, museo eta beste kultura-erakunde batzuetan ere.

¹ Argitalpena, arte grafikoak eta kultura-eremuko aparatuak egiteko jarduerak soilik sartzen dira, baita kultura-zerbitzuak ere.


29. irudia. Kultura-jarduerako enpresek langileak kontratatzeko dituzten zailtasun nagusiak. 2008



Iturria: Lan Merkatuaren Errolda. 2008.

Azkeneko urtean, enpresen % 15ek arazoak izan ditu langileak kontratatzeko, eta horretarako, eremu geografiko zabalagora jo dute (% 40), soldatak igo dituzte (% 12,8), eta/edo barneko langileei prestakuntza eman (% 12,2). Hala ere, enpresen % 21ek baino gehiagok ezin izan ditu zailtasunak gainditu.

30. irudia. Kontratatzeko zailtasunak konpontzeko harturiko konponbide nagusiak. 2008



Iturria: Lan Merkatuaren Errolda. 2008.

Kultura-enpresek ez dute askorik parte-hartzen langileak birziklatzeko etengabeko prestakuntzako ekintzetan, soilik enpresen % 17k egin du ahaleginen bat horretan (ehuneko hori % 27raino igotzen da sektore ekonomiko guztiak aintzat hartuta). Dena dela, ezin dugu aipatu gabe utzi prestakuntzako parte-hartzea estu-estu loturik dagoela enpresaren tamainarekin, eta arazo hori kulturaren sektorean ez ezik, ekonomia-jarduera guztietan ere sumatzen dela.

Prestakuntzarekiko sentsibilizazio-mailarik handiena duten enpresek 1.500 bat ikastarotan hartu dute parte; guztira 5.000 langile¹ izan dira gaitasunak garatu dituztenak, eta parte-hartzaile guztien² gaineko ehunekoari dagokionez, hutsaren hurrengo dela esan dezakegu (% 0,89).

Parte-hartzeari dagokionez, ez dago alde handirik generoari erreparatuta, baina bai adinari erreparatuta; izan ere, langile gehien-gehienak 35-54 urte bitartekoa dira.

Langile trebatuak eta arlo teknikoko langileak dira lanbide-kategoria dinamikoenak zentzu horretan (ia % 50), eta, bereziki, kontratu finkoa dutenak.

Ohiko moduan, kultura-jarduerarekin loturiko gaiak (espezifikoak) izaten dituzte, baita informatika (teknikoa eta erabiltzaile-mailakoa), eta laneko segurtasuna eta osasuna ere.

Enpresen % 70ek baino gehiagok erakundeetako diru-laguntzak jaso ditu ekintza horietan parte hartzeko, eta gainerako enpresek beren finantzaketarekin egin dute.

31. irudia. Prestakuntzara bertaratutakoen banaketa, prestakuntzaren edukiaren arabera. 2008

Prestakuntzaren edukia	GUZTIRA
Jardueraren berezko prestakuntza-eremuak	40,7
Jardueraren berezko prestakuntza-eremuak	13,4
Laneko Segurtasuna eta Osasuna	13,3
Informatika teknikoa	12,5
Administrazioa eta finantzak	6,5
Hizkuntzak	4,9
Giza Baliabideak	3,1
Giza Baliabideak	2,4
Mantentzea	1,6
Zuzendaritza	1,1
Merkataritzakoa	0,4
Ingurumena	0,1
GUZTIRA	100,0

Iturria: Lan Merkatuaren Errolda. 2008.

1 Hau da, 5.000 parte-hartzaile ekintzetan, baina langile batek 2-3 ikastaro egin ahal izan ditu.

2 Zehazki, 541.255 langile.


4. LAN MERKATUA KULTURA JARDUERETAN: ENPLEGUAREN ESKAINTZA ETA ESKARIA

Hirugarren bloke honetan lan-merkatua aztertuko dugu (enpleguaren eskaintzak eta eskariak), INEMen Enplegu Behatokiak emandako informazioan oinarrituta¹.

Kontratazioari dagokionez. Lan-merkaturi buruzko adierazleei erreparatuta, kultura-jardueraren barruko enplegu-ezegonkortasuna sumatuko dugu:

- Enpresetan langileak sartu-irten ugari. 2009. urtean, EAEn 44.000 lan-kontratu erregistratu² ziren kultura-jardueretan, bereziki, Bizkaian (% 52) eta Gipuzkoan (% 35,8), eta hein txikiagoan, Araban. Aldakortasun horrek jolas eta kultura jardueretan eragiten du, bereziki (ia % 92).

32. irudia. EAEko kultura-jardueretan erregistratutako kontratuak, ekonomia-jardueraren arabera. 2009



Iturria: INEM.

- EAEn 2009an izandako kontratazioen guztirakoari dagokionez, kultura-jarduerak guztirakoaren % 6,5 dira eta zenbateko hori oso handia da; izan ere, jarduera horietako enpleguak gainerako jardueren gaineko % 1,9 baino ez baitu osatzen (19.340 langileko kopuruarekin). Esate baterako, zenbateko hori kezkatzeko modukoa da Gipuzkoan, kultura-kontratuen ehunekoa ia % 8ra iristen baita, kontratu guztiei dagokienez.

33. irudia. EAEko adierazleak. 2009


EAE	GUZTIRA
Kultura-jardueretako kontratazioak, guztira	43.782
Kontratazioak, guztira (sektore guztiak)	674.007
Kultura-kontratazioaren %-a/gainerako jarduerak	% 6,5

1 Aipatu behar dugu INEMek erabiltzen dituen datuak bi zifraok baino ez direla; beraz, informazioa araztu behar izan dugu emaitzak bat etor zitezen kultura-jardueren errealitatearekin. Dena dela, «jolas, kultura eta kirol jardueren» kasuan, balio hori INEMek eman bezala utzi behar izan dugu, eta ezin izan dugu araztu kirolei zegokien informazioa.

2 Kontratazio kopuruak ez du adierazten zenbat pertsona kontratatu diren, baizik eta pertsonak urtebetean zenbat kontratu izan dituzten (pertsona berak 4 edo 5 kontratu izan ditzake urte berean).

- Kontratuetan behin-behinekotasun handia. Aurreko hausnarketarekin batera, kontratazioak aztertzeko garaian agerian geratu da sektore horretako kontratuetan behin-behinekotasun handia dagoela. Izan ere, 2009an egindako kontratuen % 95etik gora aldi baterakoak dira, eta % 4,8 soilik dira mugagabeak. Behin-behinekotasun hori are nabarmenagoa da Jolaseko, kulturako eta kiroleko jardueretan, non erregistratutako kontratuen % 3,9 baino ez den mugagabea.

34. irudia. EAEko kultura-jardueretan erregistratutako kontratuak, eta kontratuaren iraupena. 2009



Iturria: INEM.

- Kontratazio-profila. Kontratututako pertsonen artean, hauxe da ohiko profila:

- Gehienak gizonak dira (% 54,8).
- Eta batez ere gazteak. Kontratuen % 66 inguru 34 urtetik beherakoei (eta % 50 baino gehiago 29 urtetik beherakoei) egin zaizkie.
- Bigarren mailako prestakuntza da nagusi (bigarren mailako ikasketak-heziketa orokorra, % 57), baina kontratazio berrietan goi-mailako ikasketak dituztenak ere asko dira (% 30).

35. irudia. Kultura-jardueretan erregistratutako kontratuak, ekonomia-jardueraren eta ikasketa-mailaren arabera. 2008

Prestakuntzamaila	GUZTIRA
Analfabetoak	% 1,3
Lehen mailako ikasketak, amaitu gabe	% 1,8
Lehen mailako ikasketak, amaituta	% 0,3
Bigarren mailako ikas., lanbide-hezik. prog.	% 4,8
Bigarren mailako ikas., lanbide-hezik. prog.	% 56,6
Big. m. ond. ikas. teknikoak-goi-m. lanb.-ikas.	% 19,0
Big. m. ond. ikas., lehen zikloa	% 5,0
Big. m. ond. ikas., bigar. eta hirugarren zikloa	% 11,2
Big. m. ond. ikas., beste batzuk	% 0,0
GUZTIRA	% 100,0

Iturria: INEM.

— Kontratu gehien egin dituzten lanbideak: Kultura-sektoreko profesional guztietatik, hona hemen 2009an kontratazio-maila handiena izan dutenak:

- Zine, irrati, telebista eta antzerkiko aktoreak eta zuzendariak; eta berdinetsitakoak (% 13,1).
- Argazkilariak eta irudi-soinua grabatzeko tresneriako eragileak (% 11,9).
- Idazleak, kazetariak eta berdinetsitakoak (% 6,1).
- Irrati, telebista eta telekomunikazio tresneria eragileak (% 2,9).
- Musikagileak, musikariak eta kantariak (% 2,3).

— Erregistratutako langabeziari eta enplegu-eskariari dagokionez. 2008an EAeko Enplegu Zerbitzu Publikoan erregistratutakoak (betiere kultura-jarduerako enplegu-eskatzaile moduan) 2.534 pertsona izan ziren, hau da, EAEn enplegu-eskatzaile zirenen guztirakoaren % 1,9. Jolas, kultura eta kirol jarduerekin loturiko lanbideei dagokie kultura-lanbideetako eskariaren erdia baino gehiago (% 66,9).

36. irudia. Enplegu-eskatzaileak, ekonomia-jardueraren arabera. 2008

Kultura-eremua	Eskatzaileak
Argitalpenak, arte grafikoak eta euskarri grabatuen aldakiak	840
Jolas, kultura eta kirol jarduerak	1.694
GUZTIRA	2.534

Iturria: INEM.

— Hona hemen enplegu-eskari gehien dituzten lanbideak (betiere lehenengo aukera moduan):

- Kazetaria (% 22,4).
- Argazkilaria (% 7).
- Teknikaria ikus-entzunezkoetan/irudi eta soinuan (% 5,4).
- Kamera-operadorea: zinema, telebista, bideoa (% 4,1).
- Aktorea (% 3,9).

Argi eta garbi, emakumea da nagusi kultura-lanbideetako enplegu-eskatzaileen artean (% 63,6). Adin-taldeen arabera, 25-44 urte bitartekoek dute garrantzi handiena eskarian (% 74,7). Prestakuntza-mailari dagokionez, kultura-lanbideetan enplegua bilatzen ari diren landunen erdiak baino gehiagok unibertsitate ikasketak egin ditu.

5. LABURPEN KAPITULUA

EAEn kultura eremuko ekonomia jarduera duten enpresak: laburpen koadroa



ONARRIZKO ADIERAZLE KUANTITATIBOAK


EAeko adierazleen konparatiba

- Enpresa kop., guztira (orokorrean): 179.973
- Kultura-eremuko enpresa kop., guztira: 6.367
- Kultura-eremuko enpresen %-a enpresen guztirakoaren gainean: % 3,5
- Establezimendu kop./enpresa kop. ratioa (orokorrean): 1,13
- Establezimendu kop./enpresa kop. ratioa (kultura-eremua): 1,02
- 0-2 enpleguko enpresen %-a (orokorrean): % 74,8
- 0-2 enpleguko enpresen %-a (kultura-eremua): % 78,3

Gainerako AEen konparatiba

- Kultura-eremuko enpresa kop., guztira (estatua): 70.109
- Kultura-eremuko enpresen EAeko %-a, guztirakoaren gainean: % 5,1
- EAE 5. postuan dago enpresa kopuruari dagokionez, Madril, Katalunia, Andaluzia eta Valentziako Erkidegoaren atzetik.
- Kultura-eremuko enpresen %-a AEetako enpresen guztirakoaren gainean: Madril % 3,5; Katalunia % 2,3; EAE % 2,0
- Kultura-hornidura: Madril 2,9; Katalunia 2,0; EAE 1,7

EAEn kultura eremuko ekonomia jarduerako enplegua: laburpen koadroa



ONARRIZKO ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

EAEko adierazleen konparatiba

- Enpleguak, guztira (sektore guztiak): 995.375
- Enpleguak, guztira, kultura-eremua: 19.340
- Kultura-enpleguaren %-a/gainerako jarduerak: % 1,9
- Langileen batez bestekoa/enpresa (orokorrean): 5,5
- Langileen batez bestekoa/enpresa, kultura-eremua: 3,0

Gainerako AEen konparatiba

- Kultura-eremuko enpleguak, guztira (orokorrean): 562.000
- Kultura-eremuko enpleguak, guztira EAEn: 25.200
- EAEko kultura-enpleguaren %-a guztirakoaren gainean: % 4,5
- EAE 6. postuan dago enplegu kopuruari dagokionez, Madril, Katalunia, Andaluzia, Valentziako Erk. eta Galiziaren atzetik.
- EAE 4. postuan dago AE bakoitzean guztirakoaren gaineko kultura-enpleguen %-ari dagokionez, Madril, Katalunia eta Andaluziaren atzetik.

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
<<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka>>.



Argitaraldia: 1.a, 2010ko abendua

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Internet: www.euskadi.net

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua eta maketazioa: AIC, Gestión de Capital Intelectual S.A. - www.factoria-aic.com